


BALIOAK

Gure proiektuak medikuntzan aurrerapenak egiteko ideiarekin sortuta dago. Horrela, laguntza bat suertatuko dela uste dugu. Bereziki, gaixotasunak aurreikusteko programa informatikoa da, zeinek tratamenduan hobekuntzak egiteko asmoa duen. Horrela gaixotasunen arriskua murriztu egingo da, baita hiltzeko arriskua ere, eta sintomen ezagutza handiagoa izango da. Gainera, medikuei pazienteekin denbora gehiago egoteko eta haien egoera pertsonalizaturik aztertzeko aukera emango du.

Programa sare neuronalak eta adimen artifiziala erabiliko du, medikuek jasotako pazienteen gaixotasunen, sintomen eta baita hartutako tratamenduen datu guztiak hartuko ditu. Horrela, sare neuronalak pazienteak hartu beharko duen tratamenduaren predikzio zehatza egingo du. Gainera, potentzialki izan ditzakeen gaixotasunak aurreikusiko ditu, probabilitate bat behintzat, eta horrek pazientearen segimendua egiteko aukera emango du; haren egoera hobeto ezagutzuz eta haren kasuan gehiago zentratu ahal izateko.

Beste aldetik, erabiltzeko erraza izango da. Azkenik, prezioa eskuragarria izango da, hala ere, programak duen garrantzia prezioan islatuko da. Era guztietako gaixotasunak (aurrez aurretik erabakitakoak) aurreikusi ditzake.



Horrela, esan dezakegu enpresaren balioa honako hau dela: kalitatea gaixotasunek sor dezaketen arriskua murriztuz eta erabiltzeko erraztasuna.